BEASAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA

CONVENIO ENTRE EL CONSORCIO AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN EN MATERIA DE COMPROBACIÓN DE DATOS DEL PADRON MUNICIPAL.

Donostia, 2019ko azaroaren 5ean.

San Sebastián, a 5 de noviembre de 2019.

BILDUTA

Batetik, **Antonio Aiz Salazar** jauna, **GIPUZKOAKO GARRAIOIAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOA**ren **Lehendakaria**. (aurrerantzean, GGLA).

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2019ko irailaren 24an egindako GGLAren Ohiko Batzar Orokorrean onartutako erabakiaren bidez emana.

Bestetik, **Aitor Aldasoro Iturbe** jauna alkate gisa, **BEASAINGO UDALAREN** (aurrerantzean Udala) izenean eta ordezkapenean.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2019ko ekainaren 15eko udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez emana.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote gaitasun nahikoa hitzarmen hau izenpetzeko, Administrazioen arteko koordinazio, lankidetza eta elkarrekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, eta horretarako ondorengo azalpen eta klausulak hitzartu dituzte:

REUNIDOS

De una parte, **D. Antonio Aiz Salazar** en su calidad de **Presidente del CONSORCIO AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA** (en adelante, ATTG).

Interviene especialmente facultado a estos efectos por acuerdo adoptado por la Asamblea General Ordinaria de la ATTG celebrada con fecha 24 de septiembre de 2019.

De la otra, **D. Aitor Aldasoro Iturbe** en calidad de **Alcalde**, en nombre y representación del **AYUNTAMIENTO DE Beasain**, (en adelante Ayuntamiento).

Interviene especialmente facultado a estos efectos por acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación de 15 de junio del 2019.

Ambas partes se reconocen la capacidad suficiente para la firma de este convenio, en base a los principios de coordinación, colaboración y respeto mutuos entre administraciones, y en virtud de ello han acordado las siguientes exposiciones y cláusulas:

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz, Hernani, Lasarte-

ANTECEDENTES

I.- La ATTG, es un Consorcio conformado por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Gipuzkoa, y los Ayuntamientos de Donostia,

Oria eta Oiartzungo Udalek osatutako kontsortzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate-Mondragón, Zarautz, Hernani, Lasarte-Oria y Oiartzun, teniendo por finalidad cohesionar todo el Territorio Histórico a través de un modelo de transporte sostenible y apoyar los objetivos de las administraciones públicas en materia de movilidad. Su cometido es favorecer la movilidad accesible y de calidad de la ciudadanía en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebuseko hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen.

II.- La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la txartela Lurraldebus, consiguió el establecimiento de un marco integrado en los autobuses interurbanos de Lurraldebus, es decir, estableció una misma zonificación, mismas tarifas, mismo modo de pago y mismas bonificaciones/descuentos, siendo a su vez un servicio interoperable con los urbanos de Donostia/San Sebastián, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria y Oiartzun, así como con Renfe Cercanías. La txartela Lurraldebus contribuyó a incrementar el uso del transporte público interurbano de manera considerable.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurralde Historikoko garraiobide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraiobide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lurraldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu zuen. Horrela, 2012an, lurraldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurraldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko Lankidetza Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Con la intención de ir un paso más allá y poner en marcha la integración tarifaria en Gipuzkoa en los principales modos de transporte público del Territorio Histórico, dejando abierta la posibilidad de la adhesión en el futuro de otros modos, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa definió un marco tarifario global para todo el transporte público del Territorio. Así, en 2012 firmó junto con los principales agentes del Territorio (Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, Ayuntamiento de Irun, Ayuntamiento de Errenteria, RENFE y EUSKOTREN) un Protocolo General de Colaboración para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetza esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraiobide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko

El Protocolo, que estableció el marco de general de colaboración para el impulso de la implantación de dicho sistema, recogió que éste debería pivotar, entre otros, sobre la fijación de colectivos integrados en todos los

litzatekeela, garraiobide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

modos de transporte del Territorio Histórico de Gipuzkoa, con aplicación de políticas sociales comunes en todos los modos.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integratzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

El Anexo II del precitado Protocolo definió los colectivos especiales del sistema de integración tarifaria, estableciendo como requisito para obtener la tarjeta correspondiente a dichos colectivos, el empadronamiento en Gipuzkoa.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integratzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

III.- Las entidades consorciadas atribuyeron la gestión del billete único a la ATTG con la suscripción de los convenios para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Con fecha 4 de marzo de 2013 se implantó la Integración Tarifaria de Gipuzkoa bajo la marca MUGI.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

Por otra parte, con fecha 15 de marzo de 2013 la Diputación Foral de Gipuzkoa cedió a la ATTG los activos, derechos y obligaciones procedentes de LURRALDEBUS, S.L.U. necesarios para gestionar el sistema tarifario integrado del transporte público de viajeros en Gipuzkoa.

IV.- Egun, taldeentzako 180.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

IV.- Actualmente, existen más de 180.000 tarjetas MUGI de colectivos, es decir, que exigen el empadronamiento en Gipuzkoa por parte de sus titulares.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAk egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerri batean erroldatuta daudela.

El desarrollo de las funciones propias de la ATTG determina la necesidad de constatar por parte de la ATTG que las solicitantes de las tarjetas de colectivos MUGI se encuentran empadronadas en un municipio de Gipuzkoa.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetza harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen

V.- Entre los objetivos prioritarios de la ATTG figura la intensificación de las relaciones interinstitucionales de cooperación y el impulso de la modernización, racionalización y mejora de los recursos existentes, buscando, por un lado, la gestión eficaz de los recursos públicos y, por otro lado, la prestación de un mejor servicio a las personas usuarias y ciudadanía en general,

intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

simplificando los trabajos administrativos o facilitando la realización de determinados trámites, todo ello, sin menoscabo de implantar las garantías que procedan para salvaguardar el derecho a la intimidad de las personas y proteger sus datos personales.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAk ulertzen dute egokia dela GGLAk taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituena.

Por todo ello, en su interés de prestar un mejor servicio a la ciudadanía, el Ayuntamiento y la ATTG consideran adecuado que la ATTG pueda tener acceso de manera telemática a datos de residencia de la persona solicitante de la tarjeta de colectivos MUGI, que obran en poder del Ayuntamiento.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzea errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

La mejora se produce en la medida en que se evitan molestias a la ciudadanía y se le facilita el acceso a los servicios públicos y al mismo tiempo se ahorran recursos municipales en la atención de las peticiones y emisión de documentos de padrón.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

VI.- La ejecución de las tareas propias de la ATTG conlleva tener acceso de manera telemática a datos de residencia de la persona solicitante de tarjeta de colectivo. El acceso a la información precitada se produciría utilizando preferentemente medios informáticos o telemáticos y con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a la ciudadanía en relación a sus datos personales obrantes en poder del Ayuntamiento.

Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

El trámite de comprobación del padrón se gestionaría a través de la empresa Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

VII.- Por su lado, la ATTG requerirá el consentimiento de cada una de las personas usuarias solicitantes así como de las actuales beneficiarias de dichas tarjetas para acceder a los datos del padrón.

VIII- Aurrekoa ikusita, 2014ko abendua eta 2015eko maiatza bitartean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Gipuzkoako udalekin hitzarmen bana sinatu zuen izaera

VIII.- Visto lo anterior, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, durante el periodo comprendido entre diciembre de 2014 y mayo de 2015 firmó con cada Ayuntamiento de Gipuzkoa un convenio

pertsonaleko datuen lagapenaren arloan.

en materia de cesión de información de carácter personal.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49. artikuluan, hitzarmenek barnean hartu beharko dituzten gaiak zehazten ditu; horien artean hitzarmena aldatzeko araubidea xehatzen da.

La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en su artículo 49 recoge el contenido mínimo que deben incluir los convenios, entre el que se encuentra su régimen de modificación.

Egungo hitzarmenean ez da hitzarmena aldatzeko araubidearen ingurukorik adierazten. Hortaz, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko lehen atalean zehazten da hitzarmen guztiak legean aurreikusi denari egokitu beharko zaizkiola hiru urteko epean, legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta.

Dado que el actual convenio no recoge dicho régimen, en aplicación del apartado 1 de la Disposición adicional octava de la Ley 40/2015, procederá su adaptación a lo previsto en esa ley en el plazo de tres años a contar desde su entrada en vigor.

Kontuan hartuta egungo hitzarmenaren klausulak araubide juridiko berrira eta hitzarmenen gehieneko iraupenera egokitu behar direla, egokitzat jotzen da hitzarmena amaitutzat ematea elkarren arteko adostasunez, eta beste hitzarmen bat sinatzea.

Teniendo en cuenta la necesidad de adaptación del clausulado del convenio actual al nuevo régimen jurídico y a la duración máxima de los convenios, se estima conveniente resolver de mutuo acuerdo el convenio y formalizar uno nuevo.

Horrenbestez, bi aldeek hitzarmena sinatzea adostu dute honako klausula hauen arabera:

Por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio que se regirá por las siguientes:

KLAUSULAK

CLAUSULAS

Lehenengoa.- Xedea.

Primera.- Objeto.

Hitzarmen honen xedea da GGLAk MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonek Gipuzkoako Udalerriren batean erroldatuta egotea beharraren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konkidentzialtasun esparrua ezartea ere.

El objeto del presente convenio es establecer las condiciones en las que la ATTG va a tratar los datos de carácter personal sobre el requerimiento de las obligaciones de empadronamiento en algún municipio guipuzcoano por parte de las personas solicitantes de las tarjetas MUGI, así como en el marco de confidencialidad que se debe mantener por parte de la ATTG.

Bigarrena.- Izaera pertsonaleko datuen trataera eta konfidentzialtasuna.

Segunda.- Confidencialidad y tratamiento de los datos de carácter personal.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza aitortzen du badakiela jaso dezakeen

La Autoridad Territorial de Transporte de

informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioa, isilpekoa dela eta, horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek beteko ditu:

– Informazioa lehenengo klausulan aipaturiko xederako erabiliko du, hirugarrenei informazioa emateko ahalmenik gabe.

– Dagozkion betebehar guztiak beteko ditu, betiere datu pertsonalen babesa eta informazioaren segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia zorrotz errespetatuz.

– Ez die informazioa hirugarren pertsonei jakinarazi edo ezagutaraziko, ezta informazioa gordetzeko ere.

– Bere eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa duten langileei bakarrik jakinaraziko die informazioa. Bere ardura izango da isilpeko betebeharra betearazteko beharrezko neurriak hartzea.

– Bai Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza, baita bere langile guztiak ere, atal honetan ezartzen diren isilpeko betebeharraren eta sekretu profesionalaren menpe izango dira

Hirugarrena.- Segurtasun neurriak.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioaren konfidentzialtasuna zaintze aldera eta betiere, datuen segurtasuna bermatu, hauek aldatu, galdu edo baimendu gabeko inori iritsi ez dakion, beharrezkoak diren neurri teknikoak nahiz antolaketa-neurriak ezartzeko konpromisoa adierazten du.

Laugarrena.- Aplikagarri diren printzipioak.

Hitzarmen hau betetzeko ondoko printzipio eta arauak bete behar dira:

Gipuzkoa declara conocer que toda la información y, en especial, la información de carácter personal a la que tenga, acceso es absolutamente confidencial y en su virtud, bajo su entera responsabilidad, se obliga a:

– Destinar la información a la finalidad descrita en la cláusula primera, no pudiendo proporcionarla a terceras personas.

– Cumplir con cualquier obligación que pudiera corresponderle, de conformidad y con estricto respecto al marco normativo vigente en materia de protección de datos personales y seguridad de la información.

– No comunicar ni revelar la información a ninguna tercera persona, ni siquiera para su conservación.

– Comunicar la información únicamente a aquel personal que no pueda cumplir sus obligaciones sin conocerla, siendo responsable de hacer cumplir el deber de secreto adoptando las medidas necesarias.

– Tanto la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa como el personal que acceda a la información cedida quedarán sujetos al deber de confidencialidad y secreto profesional establecido en el presente apartado.

Tercera.- Medidas de seguridad.

La Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa se compromete a adoptar las medidas de índole técnica y organizativa que resulten necesarias para preservar la confidencialidad de toda la información a la que tenga acceso y, en especial, la información de carácter personal, de forma que se garantice la seguridad de los datos y eviten su alteración, pérdida o acceso no autorizado.

Cuarta.- Principios aplicables.

El presente convenio se regirá por los siguientes principios y reglas:

1.- Datuak funtzio eta eskumenetara egokitzea.

2.- Eskaturiko datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.

3.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.

4.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.

5.- Datuak transferiezinak izatea.

Edonola ere, datuetan sartzeko erabiltzailearen baimena lortu beharko du aurretik. Lortutako baimen hori dagokion espedientean jasota geratuko da. Honen inguruan, hitzarmeneko bigarren klausula ezarritakoaren arabera jardungo da.

1.- Adecuación de los datos a las funciones y necesidades existentes.

2.- Proporcionalidad entre los datos solicitados y los fines para los que se solicitan.

3.- Seguridad de los medios de transmisión y acceso empleados.

4.- Eficiencia y minimización de costes.

5.- Intransferibilidad de los datos.

En todo caso, se recabará el consentimiento previo del afectado para acceder a sus datos del padrón. Se dejará constancia del consentimiento recabado en el expediente correspondiente, todo ello de acuerdo a lo establecido en la cláusula segunda.

Bosgarrena.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLAren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzera mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da.

Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

Quinta.- Naturaleza de los datos y metodología para llevar a cabo el objeto del convenio.

Los datos objeto del presente convenio se delimitarán exclusivamente a la comprobación del empadronamiento de las personas usuarias por parte de la ATTG.

Así, se constatará que las personas solicitantes de las tarjetas de colectivos MUGI descritas en los antecedentes del presente convenio se encuentran empadronadas en un municipio de Gipuzkoa.

Respecto a la metodología por la que se realizará el objeto del convenio, cabe indicar que se utilizarán exclusivamente sistemas informáticos, tales como SFTP, FTPS o SSL. En todo caso, dichos sistemas deberán cumplir con todas las garantías de seguridad, integridad y confidencialidad exigibles por la normativa protectora de los datos de carácter personal.

Seigarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmer hau sinatzen dutenak, unean-unean ezarritako ordezkaritza sistemaren bitartez, jarraipen batzordean bilduko dira egoki iritzitako maiztasun eta inguruabarrak ematen direnean. Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira: hitzarmenaren aplikazioak eragiten dituen arazo ezberdinak aztertzea, informazio lagapen berriak sistematizatu eta automatizatzeko egokiera aztertzea, eta proposatutako eskaera nahiz beharren arabera eta beharrezko baliabideen balorazioa eginda, kasu bakoitzarentzat egokiena den prozedura eta garapen informatikoa adostea.

Zazpigarrena.- Ez betetzeak.

Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilen kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutakoari) dagozkion funtzioez gain, aldeetako batek, hitzarmen honetan jasotako edozein baldintza ez betetzeak, besteari gaitasuna emango dio bat-batean eta zuzenbide osoz hitzarmena indargabetzeko.

Arrazoia edozein izanda ere, hitzarmena behin indargabetuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza berehala hitzarmena gauzatzerakoan iritsi zaion informazio guztia, edozein euskarritan egonda ere, itzuli beharko du.

Aipatu informazioa itzuli arte, berau behar bezala gordetzeko erantzukizuna izango du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak.

Sexta.- Comisión de seguimiento.

Los firmantes del presente convenio participarán, a través del sistema de representación que en su momento se establezca, en la Comisión de Seguimiento que se constituya, y que se reunirá con la periodicidad y bajo las circunstancias que se estimen oportunas. Dicha Comisión tendrá como finalidad analizar las distintas cuestiones que se deriven de la aplicación del convenio y estudiar la sistematización y automatización de nuevos suministros de información, en función de necesidades y solicitudes que se propongan y de la valoración de los recursos necesarios, acordando los procedimientos a seguir y el desarrollo informático más adecuados para cada caso.

Séptima.- Incumplimientos.

Con independencia de las responsabilidades penales, administrativas y civiles en que pudiera incurrirse por el inadecuado uso o acceso a dicha información, o cualquier otra violación de la obligación de sigilo, y sin perjuicio de las funciones que corresponden a la Agencia Española de Protección de Datos o a la Agencia Vasca de Protección de Datos (creada por la Ley 2/2004, de 25 de febrero), el incumplimiento por alguna de las partes de cualquiera de las obligaciones contenidas en el presente Convenio, facultará a la otra para resolverlo de pleno derecho e inmediatamente.

Resuelto éste por cualquier causa, la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa deberá, de forma inmediata, proceder a la devolución de toda la información a la que haya tenido acceso como consecuencia de la ejecución del Convenio, con independencia del soporte en el que se encuentre.

Hasta que tenga lugar la devolución de la citada información, la Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa responderá de la correcta conservación de los mismos.

Zortzigarrena.- Erantzukizuna.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak, berak edota informaziora sarbidea duen langileriak, hitzarmen honetan ezartzen den edozein betebehar betetzen ez badute sor daitezkeen kalte-galera guztien erantzukizuna izango du.

Octava.- Responsabilidad.

La Autoridad Territorial de Transporte de Gipuzkoa responderá de todos los daños y perjuicios que sean consecuencia del incumplimiento de cualquiera de las obligaciones establecidas en el presente Convenio, por sí misma o por parte del personal que tenga acceso a la información.

Bederatzigarrena.- Lege Araubidea

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak Atariko Tituluko VI. Kapituluan xedatutakoarekin bat.

Novena.- Régimen Jurídico.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Hamargarrena.- Ondorioak, aldaketak eta iraungipena

1.Hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak, eta lau urtez egongo da indarrean. Epe hori bukatu aurreko edozein unetan, akordioaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, gehienez beste lau urterako.

2.Hitzarmenaren aldaketa bi aldeen adostasunarekin burutuko da, Jarraipen Batzordeak hala proposatuta; horretarako, Hitzarmenaren indarraldian zehar aldaketa gehigarriaren harpidetza taxutu beharko da.

3.Hitzarmena iraungi ahal izango da:

a) Indarraldia igaro eta hitzarmenaren luzapena oraindik erabaki gabe egoteagatik.

b) Aldeek aho batez hala adosteagatik.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.

d) Epaileak hitzarmena deusez deklaratzeagatik.

Testu honetan eratzen den Jarraipen Batzordeak izango du eskumena hitzarmenean jasotako betebeharren eta konpromisoen inguruan bi aldeetako

Décima.- Efectos, modificación y extinción.

1.- El presente Convenio surtirá efectos desde la fecha de su firma y estará vigente durante cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización de este plazo, las partes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales.

2. La modificación del Convenio se realizará por acuerdo de las partes a propuesta de la Comisión de Seguimiento, mediante la suscripción de la oportuna adenda de modificación, formalizada durante el periodo de vigencia.

3. El convenio podrá extinguirse:

a) Por el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) Por acuerdo unánime de las partes.

c) Por el incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguno de los firmantes.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del mismo.

La Comisión de Seguimiento que se instituye en este texto será la competente para conocer y valorar los incumplimientos que cualquiera de las partes denuncien en cuanto a las recíprocas obligaciones y compromisos

edozeinek salatzen dituen ez-betetzeen berri izateko eta horiek baloratzeko.

4. Lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko informazio lagapena orain arte beste tresnaren batek arautu badu, hitzarmen honek tresna hori ordeztuko du. Dena den, ulertuko da tresna horrek baimendutako lagapenak indarrean daudela eta hitzarmen honek babestu eta arautzen dituela, eta bidezko eranskinen bitartez gehituko zaizkio hitzarmenari.

que contraen en el mismo.

4.- Este Convenio sustituirá a cualquier otro instrumento anterior que haya podido regular hasta la fecha el suministro de información entre el cedente y el cesionario, entendiéndose vigentes, y amparados y regulados por el presente convenio todos aquellos suministros autorizados bajo la vigencia de aquel anterior, incorporándose al mismo a través de los anexos correspondientes.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren iraupena.

1.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urte iraungo du. Hala ere, beste lau urtez luzatu daiteke, bi aldeek idatziz hala erabakitzen badute.

2.- Iraupenari buruz erabakitakoa gorabehera, bi aldeetako edozeinek alde bakarrez suntsiarazi dezake hitzarmena, hura bukatu baino bi hilabete lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazita.

Undécima.- Duración del Convenio.

1.- El presente Convenio entra en vigor en el día de su firma y tendrá una duración de 4 años, pudiendo prorrogarse por un nuevo periodo de cuatro años más previo acuerdo por escrito de las partes.

2.- Con independencia de lo acordado en cuanto a su duración, cualquiera de las partes podrá resolver el convenio unilateralmente con tan solo comunicarlo a la otra por escrito con dos meses de antelación a la fecha prevista de finalización del mismo

Ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Y en prueba de conformidad y para la debida constancia de todo lo convenido, firman las partes el presente documento en duplicado ejemplar en el lugar y fecha del encabezamiento.

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

AITOR ALDASORO ITURBE

CONSORCIO AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA/ GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOA

ANTONIO AIZ SALAZAR